

horoskopoa

A R I E S
martxoak 21 - apirilak 20

Deika duzu, baina zu ez zara konturatu. Entzun iezaiozu.

T A U R U S
apirilak 21 - maiatzak 20

Hori da. Lasai hartu behar da. Urduritasunek ez baitute ezertan laguntzen.

G E M I N I
maiatzak 21 - ekainak 20.

Elefanteen moduko belarriak izateak ez du esan nahi entzumen ona duenik.

C A N C E R
ekainak 21 - uztailak 20

Zinemaldian ez duzu zertan izar bila ibili, zu baitzara izarrik distiratsuen.

L E O
uztailak 21 - abuztuak 23

Kontu pixka bat izan behar da esaten denarekin.

V I R G O
abuztuak 24 - irailak 23

Guztia ondo atonduta izatea nahi izaten duzu, baina zeure erara, ezta?

L I B R A
irailak 24 - urriak 23

Hilabete honetan bai. Hilabete honetan izango duzu zain zauden berri hori.

S C O R P I U S
urriak 24 - azaroak 23.

Aerobic egiten duzunetik gerra gutxiago ematen duzu.

S A G I T T A R I U S
azaroak 24 - abenduak 23

Gorputz lirain horrekin herriko guztia begira dituzu.

C A P R I C O R N U S
abenduak 24 - urtarrilak 20

Gatz apur bat gehiago bazenu, berehala igoko zinateke Txindoki puntaraino.

A Q U A R I U S
urtarrilak 21 - otsailak 18

Batzuei haserre aurpegia eta bekoki iluna erakustea ez da bekatu.

P I S C I S
otsailak 19 - martxoak 20

Barka jezadazu burutazio txarren bat egiten badut.

Uxue Agirre

efemerideak

Euskal Kongresua Hendaian

1901eko irailaren 16an Euskal Kongresua bildu zen, Hendaian. Probintzia guztietako euskaltzain garrantzitsuenak bildu ziren, euskal ortografiaren batasunaz hitz egiteko. Kongresu horretatik Euskaltzaleen Biltzarra sortu zen.

1837 Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru diputazioak banatu eta Foruak murriztu zituzten.

1918 Estanislao Aranzadi hil zen, Oñatin. Eusko Ikaskuntza Jardunaldietara joana zelararik.

1931 Hamalau gazte abertzale espetxeratu zituzten Bilbon.

SANTUAK

Eufemia, Ellande.

telebista - irratia

EUSKAL TELEBISTAK ETA CANAL PLUSEK HAINBAT SAIO BEREZI EMANGO DITUZTE

Donostiako Zinemaldia telebistan

■ Albistegietan ez ezik, bestela ere tarte zabala eskainiko diote Donostiako Zinemaldiari ETBk eta Espainiako Canal Plusek. Inaugurazio ekitaldia zuzenean emango dute telebista biek, bihar, baina irailaren 26ra bitartean egunero emitituko dituzte programa bereziak.

Erredakzioa / Donostia

BIHAR hasi eta irailaren 26an amaituko da Donostiako Zinemaldia. Inaugurazio ekitaldia bihar gauean izango da, eta ETBk zein Canal Plusek zuzenean emitituko dute: ETB1ek *Bertatik Bertara* saioaren barruan, 20:40etatik aurrera, eta telebista pribatuak 21:00etan, baina 20:30etan Zinemaldiari buruzko informazio eman ondoren.

Inaugurazio ekitaldiaz gainera, Zinemaldiaren gaineko albistegia emango du Canal Plusek astelehenetik ostiralera, gauero, 21:20an. *Especial Informativo Festival de San Sebastián* du izena, eta hamar bat minutu iraungo du.

ETBko kamerak, bestalde, Anthony Hopkins aktoreari larunbatean -hilak 19- egingo dioten omenaldian ere izango dira. Donostiako Europako saria emango diote jaialdi horretan. John Malkovich, berriz, Donostia Saria emango diote datorren ostegunean -hilak 24-, eta ekitaldi hori ere emitituko du ETBk; eta baita Zinemaldiaren amaiera jaialdia ere, hilaren 26an. Jaialdi horiek ETBko bigarren katetik emango dituzte.

Larunbat honetan, Anthony Hopkinsen omenaldia baino lehenago, aktore ospetsu horri buruzko saio berezia emango dute ETB2tik. *La noche de...* berezia izango da, Felix Linaresek aurkeztua, beti bezala. Hopkinsen ibilbide



Iaz, Michael Douglass jaso zuen Donostia Saria. Aurten, John Malkovichek eskuratuko du.

EDURNE KOCH

profesionalaz hainbat datu emango dituzte. Horrez gainera, berak interpretatutako film famatu bi ere emango ditu ETB2k: *El silencio de los corredores* bihar, eta *Regreso a Howard's End* larunbatean.

Horrez gainera, *Bertatik bertara* eta *Lo que faltaba* ma-

gazinek egunero egingo dute Zinemaldiari buruzko tarte. Hain zuzen hasiera ekitaldia emango dute *Bertatik Bertara* saioaren barruan, baina horrez gainera, Zinemaldian izango diren kritikari, kazetari, langile, aktore, ospetsu eta abarren adierazpenak ere jasoko di-

tuzte, eta *Lo que faltaba* saioan ere bai.

David Barberoren *Forum* programa ere Zinemaldiaren ingurukoa izango da gaur eta bihar. Jose Maria Lara zinema produktoreari egingo dio elkarrikeria gaur, eta Diego Galan Zinemaldiko zuzendariari bihar.

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak irailaren 23an Belodromoan emango duen kontzertua ere grabatuko du ETBk, hemendik egun batzuetara emititzeko. Orkestrak zenbait filmetako soinu bandak interpretatuko ditu kontzertu horretan. X

'Forum' saioan Zinemaldiaz hitz egingo dute

gaur eta bihar: Jose Maria Lara zinema

produktorea izango da gaurko gonbidatua,

eta Diego Galan Zinemaldiko zuzendaria biharkoa

t . x . o . r . i . t . x . o . a . r . i . m . o . k . o . k . a

EZIN da esan Txema Montoiak eta Jon Uriartek saio berri bat estreinatu dutenik. *La Peña* da bikote horren azken lana. Eta, aitzakiarik gabe, ETBren programazioaren gala merkea bihurtu zen alde batetik. Julio Ibarra, Josu Ituarte, Joxe eta Nerea Iriarte, Marivi Bilbao-Goioaga eta Mario Pardo eta abar eta abar izan ziren *La Peña*-ko tabernan. Adibide gisa, Montoiak eta Uriarteren lehen gonbidatuak Txetxu Ugalde eta Yolanda Alzola izan ziren. Eta elkarriketatuak bezalaxe, oso atseginak iruditu zitzaizkidan biak. Ez zuten inolako erreparorik jarri beren hankasartzeak gogoratze-ko orduan. Hori bai, hankasartzeak baino gehiago *zakarkeria* dibertigarriak zirelako, noski. Gainontzekoen eskusartzeak ezagunegiak ziren. Eta makina bat aldiz ikusiak ditugu ETBn. Etxeko trapu garbiak astintzea, ordea, ez da batere ariketa terapeutikoa.

Hala ere, *La Peña* saioa ez zen horrekin bakarrik osatu. Gero, Carmen Sevillarengana joan ziren -A3 katearen emisio eskubideak kontuan

Zapata berriak bustitzen

hartu eta gero, espero dut-. Errekurtso gisa, inozoena ez bada, infantilena bada. Carmen Sevilla mauka bat da. Akatsen altxorra bihurtu denetik ez du ezer zuzenik egin eta esan nahi. Zorionez, horrek ditxosozko telezaramatik kanpo dagoen telesoin bakarra bilakatu du Carmen Sevilla. Inolako errespetu eta lotsarik gabe manipulatzen du hizkuntza telebisiboa. *Sormin* katodikoa da Carmen Sevilla. Bere telekideek -Isabel Gemiok, esaterako-, mediokritatearen isurkian itozten ari diren buru *épatant* ezgaiek, Carmenen gainetik dabilzala uste dute. Eta ez dago ezer telebistaren errealitatek urrunago.

Oso erraz osa dezakezu edozein saio emakume horren agerraldi bakoitzagaz. Eta hori metatelebistaren sintoma baino gehiago alferkeriaren edota zerbait txarragoaren sintoma izan daiteke. Zer esanik ez *Tómbola* izeneko *deskarteak* erabiltzen badi-

tuzu. Seguraski munduan egin den saio pozoitsuena izango da *Tómbola*. Bertan bihotz prentsako nano sumindu txiki-txikiak biltzen dira. Inork ez du nanoa izan nahi. Saltoka ibiltzen dira Chabeli, Pocholo edota Ricardito Boffillen intimitatearen gainean, burua nonbaitetik agertzeko. Patetikoa da. Karmele Merchantek eta Jesus Mariñasek egiten duten bikotea komunetik behera botatzekoa da. Eta gero bonba bat jaurti barrura. Hala ere, *La Peña*ko lagunak erabiltzen jarraitu nahi badute aukera ditzatela bideo-kopia hobeak. *Videos de primera* saioan aurkeztu diren lanen kalitatea mila bider hobeagoa da haiena baino. Platoko argiztapena zaindu behar den legez zaindu behar da magnetoskopio barruan dagoena. Kalitatea hemen kantitatea baino askoz ere erabakigarriagoa da, leloak telebistaren izpiritu erdiaren aurka jotzen duen arren. Eta hemen kalitate gabe-ko kantitateaz beti abusatu egin da.

Ines Intrausti